



Ermuko Udaleko Udal Talde Sozialistaren bozeramaile den Beatriz Gamizek, indarrean dagoen legediaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Udalbatzarrean eztabaidatu eta, hala badagokio, onesteko.

ZIOEN AZALPENA

AYUNTAHIENTODE ERHUA/ERHUKOUDALA
REGISTRO GENERAL/ERREGISTRO OROKORRA
ENTRADA/SARRERA
Fecha/Data 21-04-22 11:45:04

46 urte dira Mendebaldeko Sahararen arazoa enkistatua dagoela.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 74 ebazpen argitaratu ditu gatazkari irtenbide politikoa aurkitzeko helburuarekin.

Urteetan zehar, Nazio Batuen ebazpenek gatazka konpontzeko proposamenetan aurrera egin dute.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak Mendebaldeko Saharari buruz emandako azken ebazpenean, 2021eko urriaren 29ko 2602an, berretsi egiten da "alderdiei konponbide politiko justu, iraunkor eta onargarri bat lortzen laguntzeko konpromisoa. Konponbide politiko hori adostasunean oinarritu beharko litzateke eta Mendebaldeko Saharako herriaren erabaki askea aurreikusiko du, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta asmoekin bat datozen xedapenen esparruan. Gainera, kontuan hartu dira idazkari nagusiari 2007ko apirilaren 11n aurkeztutako Marokoren proposamena, Marokok konponbide baterantz aurrera egiteko egindako ahalegin serio eta sinesgarriak onetsiz, eta Fronte POLISARIOAK idazkari nagusiari 2007ko apirilaren 10ean aurkeztutako proposamena ere bai.

1997tik hona Mendebaldeko Sahararako NBEko idazkari nagusiaren 6 ordezkari berezi izendatu dira. 2021eko azaroaren 1etik Staffan de Mistura diplomatiko italiarra da Mendebaldeko Sahararako NBEko idazkari nagusiaren ordezkari berezi berria.

Sahararren egoerak konponbidea behar du. Ia 200.000 saharar bizi dira Tindufeko bost kanpamenduetan, eta ia % 40 17 urtetik beherakoak dira. 1975az geroztik, milaka pertsona bizi dira egoera latz horretan eta nazioarteko laguntza humanitarioaren mende.

Existe un firme compromiso histórico y emocional de la sociedad española con la población saharauí y refugiada. Ese firme compromiso con la población saharauí refugiada se manifiesta en el apoyo sostenido y continuado de

Espainiako gizarteak konpromiso historiko eta emozional irmoa du saharar herria eta errefuxiatuekin. Saharar errefuxiatuekiko konpromiso sendo hori elikadura-segurtasunaren, nutrizioaren eta osasunaren sektoreetako funtsezko proiektu estrategikoen sostengu iraunkor eta jarraituan adierazten da.

2021ean, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiar Agentziak 7,7 milioi euroko finantzaketa eman zien saharar errefuxiatuen kanpamenduei (2020an eta 2019an 5,5 milioi eurokoa izan zen).

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiar Agentziaren laguntzari autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen lankidetzak-laguntza garrantzitsua gehitu behar zaio, tradizionalki oso aktiboa izan baita krisi honetan, zeinak Espainiako administrazio eta herritar guztien konpromisoa erakusten duen.

Arreta egitea merezi du, halaber, elkartasun-karabanetan herritarrek adierazitako konpromisoak, "Vacaciones en paz" programako haurrenganako harrerak eta sahararrekin senidetzeko kultura-jardueren sare handiak.

Horregatik guztiagatik:

1. Elkartasuna eta babesa adierazten dizkiogu Saharar herriari, eta udal-elkarteen sarearekin batera, lankidetzak eta ekintza humanitarioko jarduerak indartzeko konpromisoa hartzen dugu.
2. Gatazkaren aldeei irmoki esaten diegu bi aldeentzat onargarria den konponbide politiko bat bilatzeko lan egin dezatela, Nazio Batuen ebazpenen barruan eta nazioarteko legezkotasuna betez.
3. Espainiako Gobernuari esaten diogu Staffan de Mistura Mendebaldeko Sahararako Nazio Batuen idazkari nagusiaren ordezkari bereziari laguntzen jarraitzeko, Nazio Batuen esparruan bi aldeentzat onargarria den irtenbide bat lortzeko.